

## Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aintzane Ezenarro Egurbide Aralar legebiltzar-taldeko bozeramaileak, indarrean den araudiaren babesean, osoko bilkuran erantzuteko hurrengo **interpelazioa** egiten dio **Patxi Lopez, Lehendakariari** “**Genero indarkeria jasan duten biktimen harretarako zuzendaritza Emakundetik kanpo sortzeari buruz**”.

### **ZIOA**

Genero indarkeria jasan duten biktimen harretarako zuzendaritza berria abian jartzeko asmoa erakutsi du Eusko Jauriaritzak. Emakundeko zuzendari berriak, Maria Silvestrek, Legebiltzarrean egindako agerraldian azaldu zuenez, zuzendaritza berri honi egokituko zaio “Etxeko tratu txar eta sexu erasoen biktima diren emakumeei eskaintzen zaien laguntza hobetzeko Erakundeen arteko Akordioaren Jarraipen Batzordea”ren koordinazioa orain artean Emakunderen esku egon den arren. Gure ustez, era horretako zuzendaritza bat Barne Sailaren barruan kokatzeak indarkeria matxista eta berdintasunaren aldeko borroka disoziatzeko arriskua dakar. Berdintasun politikak ahalik eta zeharkakoenak izan behar dutelako ezarri zen bere garaian Emakunde Lehendakariitza pean. Eta emakumeen aurkako indarkeria berdintasunaren borrokatik bereizi ezin delako hartzen zuen Emakundek bere gain erakunde arteko jarraipen batzordearen koordinazioa.

Hori dela eta, interpelazioa egiten diogu Patxi Lopez, Lehendakariari:

### **INTERPELAZIOA**

- Zergatik eratu da Genero indarkeria jasan duten biktimen harretarako zuzendaritza Emakunde erakundetik kanpo eta Barne sailaren baitan?
- Zergatik eta ze helbururekin eskualdatu da *Etxeko tratu txar eta sexu erasoen biktima diren emakumeei eskaintzen zaien laguntza hobetzeko Erakundeen arteko Akordioaren Jarraipen Batzordearen* koordinazioa Emakundetik zuzendaritza berrira?
- Nola pentsatzen duzue uztartzea berdintasunaren eta indarkeriaren aurkako borroka ezinbesteko duen zeharkakotasuna, koordinazioa Barne sailaren pean jarritz?

Gasteizen, 2009ko uztailaren 1ean

**Aintzane Ezenarro Egurbide**

**Aralar legebiltzar-taldeko bozeramailea**

